

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Oposizioak eta lehiaketak

HEZKUNTZA SAILA

520

AGINDUA, 2026ko urtarrilaren 30ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez zazpigarren aldiz aldatzen baita 2023ko ekainaren 21eko Agindua, zeinaren bidez argitara ematen baitira 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko aginduen bidez deitutako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan hautatutako izangaien behin betiko zerrendak, eta laugarren aldiz aldatzen baita 2023ko urriaren 30eko Agindua, zeinaren bidez argitara eman baitzen hautaketa-prozesu horretan hautatutako pertsonen bigarren zerrenda osagarria eta uko egiteagatik edo deialdian eskatutako baldintzak ez betetzeagatik karrerako funtzionario izendatzeko eskubideak indargabetzen dituen bigarren hautatuen zerrenda.

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2026ko urtarrilaren 12ko Ebazpenaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaia bete, eta zazpigarren aldiz aldatu zen Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2023ko ekainaren 5eko Ebazpena (2023ko ekainaren 16ko Ebazpenaren bidez zuzendu ziren). Ebazpen horietan, hurrenez hurren, argitara eman ziren Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzako unitateek barematu zituzten merezimenduen behin betiko puntuazioak eta Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko aginduen bidez deitutako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuko merezimenduen guztizko puntuazioak.

Horren arabera, Nerea Lacalle Orive andrearen puntuazioak aldatu ziren Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko aginduen bidez deitutako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan, aipatutako ebazpenean jasotako baldintzetan.

Ondorioz, ikusita zer oinarri dituen aipatutako hautaketa-prozesua arautzen duten deialdiak, kidego eta espezialitate bakoitzeko izangaiak ordenatu behar dira kontuan hartuta zein diren merezimendu-lehiaketa bidez salbuespenezko prozesuan lortutako guztizko puntuazioak. Horrela, zenbat plaza dituen aukeratutako kidegoko espezialitatean, hainbat hautagai edo gutxiago hautatuko dira.

Izangaiak lortutako guztizko puntuazioen arabera ordenatzeko aldaketa horrek berekin dakar hautatutako pertsonen zerrendetan sartu behar izatea pertsona batzuk, hasieran hautatuak izan ez direnak eta espezialitate horretan hautatutako azken izangaiak lortutakoa baino guztizko puntuazio handiagoa aitortu zaienak. Hori dela eta, Nerea Lacalle Orive andrea sartu behar da hautatutako pertsonen zerrendan.

Bestalde, Hezkuntzako sailburuaren 2025eko abuztuaren 1eko Agindua ikusita, betearazi behar da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaia. Epaia horren bidez, aitortzen da Victoria Santamaría González andreak eskubidea duela izendatua izateko hautatutako pertsona, salbuespenezko prozesu horretan lortutako merezimenduen balorazioaren arabera.

Ondorioz,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Aldatzea Hezkuntzako sailburuaren 2023ko ekainaren 21eko Aginduaren I. eranskina (agindu horren bidez, argitara eman ziren Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko aginduen bidez deitutako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan hautatutako izangaien behin betiko zerrendak), helburu hauekin:

Epaia betez, Nerea Lacalle Orive andrea izangai hautatu gisa sartzea Maisu-maistren kidegoko Haur Hezkuntza espezialitatean, txanda irekian, 2. hizkuntza-eskakizuna. Espezialitatean hautatutako azken izangaiak (2023ko ekainaren 21eko Aginduaren I. eranskina) 10.5000 puntu lortu zituen guztira. Beraz, 10,5120 puntu eman zaizkionez, hautatutako pertsonen zerrendan sartu behar da.

Bigarrena.– Aldatzea Hezkuntzako sailburuaren 2023ko urriaren 30eko Aginduaren I. eranskina, hautatutako pertsonen bigarren zerrenda osagarriari buruzkoa (agindu horren bidez argitara eman ziren Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko aginduen bidez deitutako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan hautatutako pertsonen bigarren zerrenda osagarria, bai eta uko egiteagatik edo deialdian eskatutako baldintzak ez betetzeagatik karrerako funtzionario izendatzeko eskubi-deak indargabetzen dituzten hautatutako pertsonen bigarren zerrenda ere), helburu hauekin:

Epaia betez, Victoria Santamaría González andrea izangai hautatu gisa sartzea Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasleen kidegoko HEO Italiara espezialitatean, txanda irekian, 10.0000 guztizko puntuazioarekin.

Hirugarrena.– Aldatzea Hezkuntzako sailburuaren 2023ko urriaren 30eko Aginduaren VI. eranskina, Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko aginduen 2.1 eta 2.2 oinarrietan eskatutako baldintzaren bat betetzen ez duten ordezkoen zerrendari buruzkoa (agindu horren bidez, argitara eman ziren Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko aginduen bidez deitutako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan hautatutako pertsonen bigarren zerrenda osagarria, bai eta uko egiteagatik edo deialdian eskatutako baldintzak ez betetzeagatik karrerako funtzionario izendatzeko eskubideak indargabetzen dituzten hautatutako pertsonen bigarren zerrenda ere), bertatik kanpo uzteko Victoria Santamaría González andrea.

Laugarrena.– Hogei egun balioduneko epea irekitzea, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, lehenengo eta bigarren ataletan aipatutako izangai hautatuek dokumentuak aurkez dituzaten, hain zuzen ere Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko Aginduaren 8.1 oinarrian adierazten direnak.

Dokumentuok online aurkeztu beharko dira, Tramitaguneraren bidez (<https://hezigunea.euskadi.eus/>): «erabilitzailea (NAN/AIZ)» eta «pasahitza» sartuta «administrazio-espeditenteak: eskabi-deak, erreklamazio formalak, errekursoak» – gainerako izapideak.

Agindu honen eranskinean, argitaratzen da zinpeko aitopenen eredua eta hautatuek dokumentazioa entregatzeko eredua, bete eta adierazitako helbidean aurkeztu beharrekoa.

Bosgarrena.– Eskatutako dokumentazioa aurkezten ez duenak, edo hura aztertuta, ondorioztatzen bada ez duela betetzen deialdiaren 2. oinarrian adierazitako baldintzaren bat, galdu egingo ditu karrerako funtzionario izendatua izateko eskubide guztiak, alde batera utzi gabe hasierako eskabidea faltsutzeagatik izan dezakeen erantzukizuna. Era berean, osasun-azterketan gai ez den pertsona gisa kalifikatzen denak ere eskubide guztiak galduko ditu.

Seigarrena.– Agindu honen aurka, interesdunek berraztertze errekurtoa aurkeztu ahal izango diote Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko urtarrilaren 30a.

Hezkuntzako sailburua,
MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO.

ERANSKINA

EPE 2022. IRAKASLEAK. EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO PROZESUA
HAUTATUEK AGIRIAK ENTREGATZEKO

Abizenak:		
Izena:	NAN:	Telefonoa:
Especialitatea:		
Hautatua izan naiz Hezkuntza sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta 2022ko azaroaren 30eko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozesuan; hori dela-eta, honako agiri hauek aurkezten ditut (deialdiaren 8 oinarria):		
<p>AURKEZTUKO DUZUN/DITUZUN DOKUMENTUARE/EN ZERRENDA (Markatu entregatuko dituzunak)</p> <p><input type="checkbox"/> Kidegoan sartzeko eskatutako titulua edo jaulkitzeko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria. (*Oharra)</p> <p><input type="checkbox"/> N.A.N. (edo, atzeritarra bazara, beste dokumentu - 8.1.a) oinarria) (*Oharra)</p> <p><input type="checkbox"/> Zinpeko aitortpena edo agindua /</p> <p><input type="checkbox"/> Hizkuntza-eskakizunaren titulua edo ziurtagiria, baldin eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan edo Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan jasota ez badago</p> <p><input type="checkbox"/> Prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa edukitzea egiaztatzen duen ziurtagiri edo titulua; edo, hala badagokio, betekizun horretatik salbuetsita egotearen titulua edo esperientzia</p> <p style="padding-left: 40px;"><input type="checkbox"/> Ziurtagiria edo master titulua PPD <input type="checkbox"/> Baliokide tituluak <input type="checkbox"/> Irakasle esperientzia</p> <p><input type="checkbox"/> Epai irmo baten bidez sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituren bategatik zigortuak izan ez direla adierazten duen ziurtagiria. (*Oharra)</p> <p><input type="checkbox"/> Gaztelaniaren ezagutza egiaztatzea (espainiako nazionalitatea ez duten eta hizkuntza ofizial gisa espainiera ez duten pertsonen kasuan)</p>		
(*) Oharra: DOKUMENTUA EZ BADUZU ENTREGATUKO eta kontsultatzeko baimena eman nahi baduzu, EZ MARKATU GOIAN dagokion ataleko koadroa ETA ADIERAZI HEMEN BAIMENA EMATEN DUZULA.		
Data, tokia	Izenpetua	

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENTZAT. HEZKUNTZA SAILA

EPE 2022. IRAKASLEAK. EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO
ZINPEKO AITORPENA

Nik.....

NAN zkia.....

Zinpeko aitorpena edo agindua EGITEN DUT inongo administrazio publikotik ez nautela zigor-espediente baten ondorioz egotzi, ez naizela herri-jarduerarako ezgaitu, eta ez nagoela Herri Administrazioetan jarduten duten langileen bateraezintaunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako ezgaitasun eta batera-ezintasunaren legezko inolako kausatan sartuta.

....., 2025eko.....-k.....

Izpta.:

Nazionalitate espainolik ez duten izangaiak betetzeko:

Nik.....

NAN zkia.....

.....(e)an (Estatuaren izena), Funtzio publikora sartzea eragozten duen diziplina- edo espetxe-zigorrik ez dudala ADIERAZTEN DUT, zinaren edo promesaren azpian.

....., 2025eko.....-k.....

Izpta.: